

opusdei.org

Belagua Ikastetxe Nagusia

Ikastaro Hasiera

2015 Aza 6

Belagua Ikastetxe Nagusiak,
Nafarroako Unibertsitateko zentro
akademikoak, jan den astean,
asteartez, 2015-16 ikastaroari hasiera
ematen dion ekitaldia ospatu du.

Ekitaldia Nafarroako Unibertsitateko
Eraikin Zentraleko Gela Nagusian
izan da eta Iritzi Publikoaren
katedradun Esteban Lopez
Escobarrek egin du hitzaldia,

“Bizitza, agertoki” izenburu duela.
Ohi den bezala, joan den urteko
memoria irakurri da ere.

Sortu zenetik, 1962an,⁴⁵
nazionalitateko 8.000 ikasle baino
gehiago igaro dira unibertsitate
erakunde honetatik eta haren
eskaintza akademiko eta kulturalari
onura atera diote. Sortzean zeukan
helburua ez da aldatu:
unibertsitarioak hezi, profesional
bikain eta langile onak izan daitezen,
zerbitzu grina eta gizartearekiko
erantzukizunezko konpromisoa
garatuz. Horrela, espiritu kritiko,
inkonformismo on eta herritartasun
zentzuaren bidez, gizartea hobetzen
laguntzeko ekimenak martxan jar
ditzaten. Aldi berean, Nafarroako
Unibertsitateko ikasle eta lankideei
oro har eta Iruñeko hiritarrei ekitaldi
hauek mesede egiten die.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/belagua-ikastetxe-nagusia/](https://opusdei.org/eu-es/article/belagua-ikastetxe-nagusia/)
(2025 Api 27)